

AGERRALDI PERFEKTUENETAN

Eider Perez Martinez

Pasai San Pedro

Mihise txuri bat bailitzan margotzen du hondar-
tza itsasbeheran.

Olatuen azken atzerakada bustietan
arrastoak ilunduz,
bitsa difuminatuz;
harriak, maskorrak, algak
erabiliz apaingarri gisa;
urruneko harea iheskorretik hasi,
oinatz biluzietatik igaroz,
hareatza hezearen sakonera iritsi arte.

Ilargi inperfektuak, ordea,
bere pintura-lan propioa ezabatzea du nahi.
Inperfekzioak beti izan dira atsekabearen goxoki.
Orduan, amorruaren negar malkoetan
ilargiak bere hareatza dotorea hondatzera behar-
tzen du itsasgora,
itsasgora joan etorri etengabe beharturik.

Beti ere bikaintasun baten bila.
Bikaintasun utopiko baten bila.

Paregabea deiturikoan itsuturik,
marrazki ezin hobearen desioan preso.
Bere jomugak,
bere nahiak betetzearen obsesioan obsesionaturik.

Eta inoiz ez ase,
inoiz ez seguru,
inoiz ez kontent bere buruarekin.
Etengabe bikaintasun utopikoaren bila,
etengabe satisfazioaren malenkonian.

Eta zorigaitzez,
ilargia bera ez da jabetzen,
ez da ohartzen.

Ez daki ikusten funtsean...
funtsean gerizpeko perlarik baliotsuena dela,
ur gazian islatzen den musurik bitxiena
perimetro gabeko bide galduan formarik biribi-
lena
eta iluntasunak duen argitan
iruntzirik argitsuena.

Ilargia da izarren izar, gaueko antzezle
gaueko antzezle zerumugetako agerraldietan,
agerraldi perfektuenetan.